

Genero berdintasuna



UN PROYECTO DE:



NOVACT

CON LA FINANCIACIÓN DE:



MINISTERIO
DE ASUNTOS EXTERIORES, UNIÓN EUROPEA
Y COOPERACIÓN



Genero berdintasuna

I. Sarrera

Eskuliburu hau "BAI BAKEARI. Gazteak bake iraunkorraren eta herritartasun globalaren alde" proiektuaren barruan dago. Agencia Española de Cooperación Internacional para el Desarrollo delakoak (Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak, AECID) finantzatu du proiektu hau, eta Movimiento por la Paz, el Desarme y la Libertad (Bakearen, Armagabetzearen eta Askatasunaren aldeko Mugimendua, MPDL) eta Instituto NOVACT de noviolencia (Indarkeriarik gabeko NOVACT Institutua) erakundeekin batera gauzatu da.

Hezkuntzako profesionalei erantzun batzuk emateko eta zalantza berriak pizteko pentsatutako bost gidalibururen multzoaren parte da. Galdera hauek dituzte profesional horiek: zer kezka edo interes duten gazteek gaur egungo bakearen mehatxuen inguruan, zer ulertzen duten hura osatzen duten elementuei dagokienez, nola mobilizatzen diren edo nola bultzatu daitezkeen, hezkuntzatik, gazteen balioak, jarrerak, ezagutzak eta trebetasunak. Tokian-tokian bakearen kulturaren protagonista eta transmisore gisa jarduteko, elkarrekin eta gogotsu pentsatzeko gai diren herritarren jarrerak, ezagutzak eta trebetasunak dira hauek.

Fundación Cultura de Paz (Bakearen Kultura Fundazioa) fundazioak MPDLren eta NOVACTen ekarpenarekin eta ikuskapenarekin egindako eskuliburu-bilduma honek Bakearen Kulturaren hainbat ardatz eraikitzaile jorratzen ditu, funtsezkoak gatazkak indarkeriarik gabe konpontzeko: genero-berdintasuna, kulturen arteko bizikidetzak, pobrezia desagerraraztea, garapen jasangarria eta ingurumen-justizia edo giza eskubideen defentsa zentzu zabalean. 11 eta 25 urte bitarteko gazteen hezkuntza-premiak, interesak eta kezkak (39 urte arteko pertsona gutxi hartu dute parte) dira gai hauen abiapuntuak. Gazte hauek Espainiako Estatuko bost lurraldetan -Cantabrian, Katalunian, Valentziako Erkidegoan, Madrilgo Erkidegoan eta Extremaduran- hezkuntza formaleko, informaleko eta ez-formaleko guneekin lotura dute, eta premiak, interesak eta kezkak aurretiazko diagnostiko-prozesu batean detektatuak izan dira. Horren emaitzak Cultura de Paz (Bakearen Kultura Fundazioa) Fundazioak egindako txosten batean jaso ziren, eta esteka honetan daude eskuragarri: https://www.mpd.org/sialapaz/06_Informe%20de%20diagn%C3%B3stico%20final.pdf.

Egiturari dagokionez, eskuliburu hau hainbat ataletan antolatuta dago, orokorretik zehatzera. Bakearen Kultura eraikitze ardatza deskribatu ondoren, ingurumena zaintzearen eta ingurumen-justiziaren inguruko diagnostikoan identifikatutako errealitateak eta erronkak aurkeztu ditugu. Jarraian, MPDLren eta NOVACTen nazioarteko hainbat ordezkartzat garatutako jardunbide egokien esperientziak daude ikusgai, gazteak bakea eraikitze prozesuetan inplikatzeko. Horietako batzuk talde-dinamika gisa zehaztu ditugu, baliabide metodologiko zehatzak iradokitze eta emateko. Ondoren, hainbat testuingurutan arlo horretako hezkuntza-lana erraztu

dezaketen gomendio pedagogikoak eta estrategia orokorrak jaso ditugu. Azkenik, gako-terminoen glosario bat jarri dugu eskura, eskuliburua ulertzeko eta erabiltzeko.

Azken batean, eskuliburu hau ez da soilik erreferentzia-esparru bat, baizik eta tresna praktiko eta hurbil bat, alternatiba iraunkorrak eta bidezkoak eraikitzea helburu duten hezitzaileei laguntzea bilatzen duena. Baliabide bizia izan dadila nahi dugu, ikaskuntzako, ekintzako eta beste etorkizun batzuk posible direla sinesten duten prozesu kolektiboen pizgarri.

II. Gaien deskribapena

Genero berdintasuna ezinbesteko zutabea da Bakearen Kultura eraikitzeko. Ez dugu helburu hori lortu, premiazko erronka global bat da, eta bizitza sozial, politiko eta ekonomikoko esparru guztiak zeharkatzen ditu. Nazio Batuek gogorarazten duten bezala, emakume eta gizonen arteko berdintasuna oinarritzko giza eskubidea izateaz gain, oinarritzko baldintza da mundu baketsu, oparo eta iraunkorra lortzeko. Genero-berdintasunerantz aurrera egitea eta bake positiboa lortzea banaezinak dira: ezin da bake iraunkorrik izan genero-indarkeriak, soldata-desberdintasunak, sexu- eta ugalketa-eskubideek atzera egiteko etengabeko arriskuak edo emakumeen eta pertsona sexu-genero disidenteen ekarpenen ikusezintasunak irauten duten bitartean. Eskubide hori bermatzeak esan nahi du **emakume eta neskato guztiak seguru sentitu ahal izango direla, beren eskubideak berdintasunean erabili ahal izango dituztela eta zuzeneko, kulturako edo egiturazko indarkeriatik libre egongo direla**. Berdintasuna, edo hobeto esanda, genero-justizia, tresna eraldatzailea da, beraz, egitura patriarkalak desartikulatzen, ikasitako genero-aginduak modu eraikitzailean zalantzan jartzeko, genero-estereotipoak desagiteko eta tratatu onak eta ongizate pertsonal eta kolektiboa ziurtatuko dituzten harreman-alternatibak praktikan jartzeko.

Berdintasunak, gainera, **emakumeen eta gizonen artean dagoen aniztasuna onartzea dakar, pertsona bakoitzaren behar espezifikoak erantzuneko dien bidezko tratua sustatuz**, behar horiek diskriminazio-iturri bihurtu gabe.

Horrez gain, **emakumeei eta neskatoei eragiten dieten diskriminazioek beste faktore batzuekin elkarreragiten dutela dioten premisatik abiatzea eskatzen du**; esaterako, haien talde etnikoarekin, jatorriarekin edo maila sozioekonomikoarekin. Ikuspegi feminista intersektionalak generoa beste zapalkuntza sistema hauekin nola uztartzen den lantzen du, hala nola, arrazakeria, homofobia, transfobia edo klase edo aniztasun funtzionalagatik bazterkeria. Ondorioz, espazio seguru, inklusibo eta indarkeria matxista eta LGBTIfobikorik gabekoen sorrera bultzatzen du, mugimendu feministek eta sexu-genero disidenteeek jendarte justuagoen eraikuntzan duten funtsezko papera aitortuz.

Era berean, ohartarazten dugu guztiz uste dugula berdintasun hori lortuko dugula **baldin eta agerian jartzen eta indartzen bada emakumeen eta neskatoen erabateko parte-hartzea gizartearen erabaki-esparru guztietan, haien aniztasun osoa aintzat hartuta**. Alde horretatik, ulertzen dugu bakea eraikitzeko prozesuetan emakumeek protagonista eta buru izatea eta euren ahotsa entzutea, eskubidea izateaz gain, badela ere gatazkak konpontzerako orduan indarkeria erabiltzeko joerarik txikiena nabarmentzea, emakumeen sozializazioak berez joera hori dakar eta. Joera hori gure gizarteetan bake iraunkorra ekarriko lukeen trebetasun unibertsala izatea nahiko genuke.

Aldarrikapen horrek eskatzen du **zaintzen praktika gizarte osoarentzat erakargarri bihurtzearen** alde egitea, eta erantzukizun partekatua eta ekitatiboa izan beharko lukeela aitortzea, bizitzarako funtsezko elementua izateaz gain, zaintzen dutenen duintasuna sustatzea eta zaintza horien interdependenteak garelako aitortzeak eta zaintzen jakiteak dakarren onura kolektiboa sustatzea.

Bestalde, azpimarratu behar da lortu nahi dugun bake feminista **internazionalista eta globala dela bere planteamenduetan**, eta printzipio nagusia elkartasun eta sororitate globala dela. Horrek, era berean, **feminismoan ikuspegi bakarretik hezi ezin dugula planteatzera garamatza, izan ere, komunitate bakoitzak berdintasuneranzko eraikuntza-bide bati aurre egiten dio abiapuntu desberdin batetik, eta testuinguru kultural eta sozial jakin batean kokatzen da**. *Feminismos en interseccionalidad en las aulas: Guía para una sensibilización feminista para todos y todas, libre de racismo y xenofobia* (Feminismoak interseksionalitatean ikasgeletan: Guztiontzako sentsibilizazio feministarako gida, arrazismorik eta xenofobiarik gabea) (Bakearen Aldeko Mugimendua – MPDL, 2024) lanean aitortzen den bezala, “mendebaldeko feminismoa liberala eta indibidualista da, eta beste feminismo batzuentzat funtsezkoak ez diren gaietan zentratuta dago, etnizitateak edo maila sozioekonomikoak zehaztutako gaiak baitituzte, besteak beste, eta hauek mendekotasun-faktore berriak gehitzen dituzte”. “Feminismo hegemoniko honek, talde nagusietakoak ez diren emakumeei zapalkuntza gehiago eragin nahi ez badie, haien analisiak unibertsal bihurtzeko edozein saiakera alde batera utzi behar du, eta beste edozeinen gainetik jartzeari utzi behar dio.” Horrela, mugimendu feministaren korrante askotarikoei, ikuspegiei eta aldarrikapenei buruzko informazioa eman nahi dugu “kontatu ohi diguten historia bakarra hausten lagunduko duen justizia sozialaren” ariketari erantzunez, eta “ikasleei bere burua gehien irudikatuta sentitzen duen aterkiaren barruan kokatzen lagundu” nahian.

III. Errealitateak eta erronkak gazteekin gai hau lantzeko, gure diagnostikoaren arabera

Gazte hezitzaile gisa egiten dugun lanerako pizgarriak izatea espero dugun hezkuntza-esperientzien aurkezpen zehatza egin aurretik, aipatutako diagnostikoan identifikatu genituen ondorio nagusietako batzuk partekatuko ditugu.

Diagnostiko honetan parte hartu zutenek genero-berdintasunarekin zerikusia zuten ulermenak, interesak eta kezak identifikatzean oinarritu ginen, eta Bakearen Kultura eraiki duen ardatz honek agertu zituen premiazko erronka gehien. Hala, inkestatutako pertsonen gehiengo handi batek “genero-berdintasun” kontzeptuaren inguruan duen iritzia diagnostiko eta eskuliburu hau kokatzen den proiektuaren ardura duten erakundeekin bat dator (eskubide eta aukera berdintasuna lortzearekin lotzen dute), baina argi dago **gezur matxista batzuk indarrez sartu direla gazterian** (emakume gazte eta nerabeengan ere eragina izan dute).

Nabarmenen artean honako hau dugu: identifikatu da galdetutako pertsonen herenak baino gehiagok uste duela **salaketa faltsu** asko daudela genero-indarkeriagatik (erantzunik aukeratuena da, baieztapen horrekin ados ez egotearen edo zer erantzun ez jakitearen aldean). Horrek, lehen erronka gisa, **uste hori datuekin gezurtatzeko beharra planteatzera garamatza (glosarioan agertzen da gezurtatze hori) eta enpatia sustatzera, eta ez susmo txarra, salatzea erabakitzen duten emakumeenganako**, prozesua zaila eta mingarria izaten dela eta justiziak erraz jartzen ez duela sentsibilizatza.

Era berean, deigarria da **genero-indarkeriaren dimentsioari eta kaltetutako edo kaltearen erantzule diren alde nagusiei buruzko ezjakintasuna**. Inkestan parte hartu duten hamar pertsonatik zazpi uste dute gizonek ere indarkeria jasaten dutela beren bikotekideen aldetik, baina, horrez gain, baieztapen hori defendatzen duten argudioak neurritz gainekoak dira.

Bestalde, **feminismoarekiko nolabaiteko etsaitasun anibibalentea** antzematen da, galdetutako pertsonen ia erdiek uste baitute **feminismoa urrunegi iritsi dela**. Horren aurrean, interesgarria dirudi ideia horretan sakontzea eta hautemate hori zertan oinarritzen den edo feminismoaren esanahian, emakumeen eskubideen aldeko mugimendua existitzearen arrazoietan eta bilatzen duen eraldaketa sozialean eragin behar dugun jakitea. Horrelako baieztapenek zera ondorioztatzera garamatzate: oinarritzko prestakuntza- eta informazio-hutsuneak informazio faltsuek, gezurrek eta gorrotozko diskurtsoek betetzen dituztela, eta horiek eramaten dutela gaur egungo gazteria berez okerrak diren halako sententzia egitera.

Feminismoaren aurkako gezurrek eta haien esanahiari buruzko distortsioak edo genero-indarkeriaren karakterizazioak hainbesteko garrantzia izan duten egoera honetan, **datu itxaropentsuak** daude, erabil daitezke sentsibilizazio-jarduera bat planteatzeko eta gure taldeetan sor litezkeen liskarrak saihesteko lagungarri izan daitezke.

Alde batetik, gehienek (hamar pertsonatik seik) uste dute Espainian oraindik ez **dela lortu genero-berdintasuna**, eta beharrezkoa dela hori lortzeko bidean aurrera egitea.

Gainera, inkestan parte hartu duten hamar lagunetik seik baino gehiagok adierazi dute **kezkatuta daudela emakumeenganako indarkeriarekin.**

Era berean, ia lautik hiruk uste dute **genero-indarkeria ez dela soilik indarkeria fisikoa.**

Bestalde, nabarmena da galdetutakoen erdiak baino gehiagok **ez dituela erruduntzat hartzen indarkeria matxistaren biktima izan diren edo indarkeria horretatik bizirik atera diren emakumeak**, eta uste dutela emakumeen janzkerak ez duela justifikatzen jasan dezakeen edozein eraso.

Gainera, feminismoari egiten zaion kritika horrekin batera, inkestatutako pertsonen ia bi herenek uste dute **feminismoak pertsonoi lagundu diezagukeela izan nahi dugun bezalakoak izaten, genero-estereotipoak hautsiz.**

Identifikatu diren hezkuntza-erronkak

Ondorio horiek erreferentziatzat hartuta, indarkeria matxistekin amaitzeko eta genero-berdintasuna lortzeko gazteen motibazioa eta gaitasunak bultzatzeko hezkuntza-lanean identifikatu ditugun erronkak honako hauek dira:

1.- **Genero-ikuspegidun alfabetatze mediatikoa sustatzea**, gazteek sare sozialetan eta diskurtso mediatikoetan dauden gezur matxistak identifikatzen eta gezurtatzen ikas dezaten. Gezur hauek salaketa faltsuei garrantzia handia ematen diete edo genero-indarkerien ezaugarriak, tamaina eta izaera desitxuratzen dituzte eta mitoak nabarmentzen dituzte. Hartara, ikusi ahal izango dugu gezurretako asko ez datozela bat errealitatearekin, eta manipulazioaren, ezjakintasunaren eta beldurraren bidez eusten zaiola matxismoari.

2.- Salaketei dagokienez, **salaketa jarri duten indarkeria matxistaren biktimekiko eta aurrera jarraitu dutenekiko enpatia sustatzea iradokitzen da**, salatze- eta berreskuratze-prozesuaren gogortasunaz edo justizia patriarkalaren oztopoez sentsibilizatuz.

3.- **Gazteek feminismoari eta bere esanahiari, jatorriari eta helburuari buruz duten iritzia entzutea.** Horretarako, elkarrizketarako gune seguru bat sortzea proposatzen da, esanahi horren inguruan dituzten usteak zalantzan jartzeko galderen bidez talde osoaren parte-hartzea motibatuz. Espazio horrek ahalbidetu behar du, kalterik eragin gabe, alde guztiek zalantzak, erresistentziak edo beldurrak adieraztea. Era berean, eta ikasgeletan islatzen den egungo gizartearen aniztasuna ikusita, feminismoaren ikuspegi bakarretik ihes egitea gomendatzen da, eta munduko hainbat tokitan dauden beste aldarrikapen eta ikuspegi batzuk ezagutzeko aukera eskaintzea.

4.- **Emakume liderrek eta mugimendu feminista globalek** pertsona guztiek eskubideak eta askatasuna izateko **egindako lorpenak ikusaraztea**, eta feminismoak hainbat esparrutatik errealitate konplexuak eraldatzeko duen boterearen adibide diren gertuko eta urruneko esperientzia errealak erakustea. Aldi berean, **gizonek borroka komun**

horretan aktiboki parte har dezaten sustatzea, gizarte bidezkoago eta berdina bat eraikitze aliatu gisa duten zeregina aitortuz, eta emakumeek bultzatutako aurrerapenak haientzat ere eskubideak eta aukerak zabaldu dituztela ulertzen dezaten sustatuz.

Horrek erakunde feministekin, LGTBQ+ kolektibokoekin eta **berdintasunarekin konprometitutako gizon-talde mistoekin** lankidetzara sustatzera eramango gaitu, hausnarketarako eta elkarrekin ekiteko espazioak sortzeko... Halaber, **helburuak lortzeki urruntzen gaituzten mehatxu globalak izendatzea** iradokitzen dugu, taldeko kideek benetako informazioa izan dezaten, “feminismoa urrunegi joan den” edo, alderantziz, **oraindik ere erabateko berdintasuna lortzeko bide luzea gelditzen zaigun birplanteatzeko**.

5.- Matxismoa eta patriarkatua zapalkuntza interseksionalen sistema batean kokatzea. Sistema honek, inkestatutako pertsonen aitortzen duten bezala, gizarte osoari kalte egiten dio eta izan nahi dugun bezala izatea eragozten digu. Gonbidatutako ditugu hausnartzera sistema patriarkalak mugak ezartzen dizkigula eta pertsona guztiei kalte egiten digula, neurri eta modu desberdinetan, baina hainbat aldetatik eta estrategia eta foroen bidez kontrol- eta presio-lana eginez.

6.- Maskulinitate berrien ereduak ezagutaraztea eta horren inguruan eztabaidatzea, izan ere matxismoak gizonezkoen ere izan nahi duten bezalakoak izatea galarazten die. Horrek eragingo du pertsona bakoitzak genero estuan oinarritutako eta botere-mendetasun harremanak dituzten rol sozialetara egokitzeak eragiten dituen ondorengo onarpena sustatzea. Baita maskulinitate berrien eredu honen defendatzaile diren gizon batzuei aurpegia eta izena jartzea ere, **erreferente positibo alternatiboak izateko eta ezezagunarekiko beldurra txikitzeko**. Horrek gizonen erantzukidetasuna sustatuko du, genero-berdintasuna lortzerakoan, eta **gizon gazteak gonbidatutako dituzten pribilegioak zalantzan jartzera eta indarkeria eta genero-ezberdintasunak desagerrarazten laguntzera**. Horretarako, beharrezkoa da, halaber, **genero-desberdintasunen eta indarkerien aurrean jarrera neutrala izatea ezinezkoa delako ideia transmititzea, eta, hala, pertsona bakoitzaren zereginari eta erantzukizunari buruz hausnartzera gonbidatzea, horiek desagerrarazteko**.

7.- Genero-identitate disidenteak ezagutaraztea eta haiekin enpatizatzea, eta ulertzea ezagutzen ez denak beldurra edo arbuioa sortzen digula. Generoa gizarte-erakuntza bat izatetik abiatzea funtsezko faktorea da diskurtso patriarkala desmuntatzeko, eta berdintasun erreala baten bilaketa sustatzeko, gure gizartea osatzen duten pertsonen genero-identitatea edozein dela ere.

IV. Praktika egokiak

Jarraian, bakegintza prozesuetan gazteen parte-hartzea bultzatzeari buruzko zenbait esperientzia aurkeztuko ditugu, pertsona guztien giza eskubideetarako sarbidea zabaltzea helburu dutenak. MPDL eta NOVACTeko nazioarteko ordezkaritza batzuetako taldeek azpimarratzen dituzte esperientzia horiek, eta eskuliburu hau eskuartean dugunontzat pizgarri izatea espero dute.

Praktika egoki hauek gauzatu diren lurralde batzuen testuinguruan, segregazio handia dago gizon eta emakumeen arteko esku-hartze espazioetan eta erronka bat suposatzen du bien arteko proiektu komun bat sortzeak (adibidez zirkua Palestinan. Jarduera hontan gorputzen bidez adieraztea eta erakustea funtsezko ardatza da; gai zailak landu eta azaltzeko espazio ausart bat da zirkua). Esperientzia horietatik nabarmentzen da, halaber, nola eman zaien protagonismoa emakume taldeei (adibidez, Kurdistanen), feminismoaren aurkako gorroto-mezuei aurre egiteko, eta rol tradizionalagoa duten emakumeak emakume antolatuengana eta feministengana hurbiltzeko, haien eskubideak ezagutarazteko.

Palestina

Zirku Eskola eta rol jokoak

Lantzen diren BKren gaiak	x	Genero-berdintasuna eta indarkerien prebentzioa
		Ingurumena zaintzea
		Giza eskubideen defentsa
		Kulturartekotasuna eta diskriminazioaren aurkako borroka
		Pobreziaren aurkako borroka
	x	Indarkeriarik eza/gatazkei modu baketsuan aurre egitea/bestelako eduki espezifikokoak.
Lantzen dituen beste gai batzuk		Emozioen kudeaketa, estresaren kudeaketa, osasun mentala, gorputz espresioa, gorputzen arteko interakzio eredu ezberdinak, harremantzeko modu seguruak, gai zailak lantzeko espazio seguruak baino espazio ausartak sortzea.
Helburua/k		Tresna sortzaileen bidez, erresilientzia emozionala eta gazteen ahalduntzea garatzea.
Proiektuaren hartzaile diren edo lotura duen biztanleria		Ekimena errefuxiatu-esparruetan bizi diren eta Zirku Eskolak hezkuntza, arte eta garapen pertsonalerako espazio gisa bultzatutako jardueretan aktiboki parte hartzen duten gazteei zuzenduta dago batez ere.

	Zeharka bada ere, proiektuak mesede egiten die haien familiei eta inguruko komunitateei, positiboki eragiten baitiete gazteek berek gizartea eraldatzeko egiten dituzten prozesuek.
Kokapena edo esku-hartze eremua	Zisjordania, errefuxiatu-esparruetan.
Ba al dago esperientzia honek oinarri duen Bakearen Kulturaren edo ardatzaren lorpenen egoera hobeto ulertzeko aukera emango digun informazio gakorik?	Esperientzia hori gertatu den esku-hartzearen testuingurua aipatutako errefuxiatu-esparruetan bizi diren biztanle askoren etsipen eta frustrazio gero eta handiagoak markatzen du: pertsona horiek beren lurretatik derrigorrez lekualdatzera eta prekarietate-egoeran eta etorkizunerako aukerak zapuztuta bizitzera bultzatu dituzten indarkeriek denboran luze iraun dute. Horrekin batera, mesfidantza areagotu egin da, ez dute uste jasandako kaltearen aitorpena eta konponketa unereren batean iritsiko denik. Indarkeria ezaren kontzeptuari eta horrek lurralde honetan dituen inplikazioei buruzko hausnarketa 2023tik NOVACTen zabaldutako eztabaida da, genozidio eta egiturazko indarkeria testuinguruan. Indarkeria-ezaren kontzeptua, erresilientziarekin batera, oso desahalduntzailea izan daiteke; izan ere, badirudi injustizia-egoera sistematiko bat jasatera gonbidatzearen baliokidea dela. Hori dela eta, eztabaida sakona izan da erakundean, tartean dauden kolektiboentzat benetan desmotibatzaileak izango ez diren eta ahalduntzaileak izango diren lan-tresnak bilatzeko. Testuinguru horretan aurkitu diren tresnek Al Haq edo Addameer bezalako giza eskubideen aldeko erakundeak babesten dituzte, justiziarik gabe bakerik ezin dela egon sakontzen baitute. Erakunde horiek tokian tokiko lana egin nahi dute gazteekin, borroka armatuarekin bat egin nahi duten pertsona gehienak gazteak baitira, eta errefuxiatu-esparruetan ez baitago haientzat garapen pertsonalerako edo kolektiborako inolako alternatibarik. Hori dela eta, aipatutako erakundeek indarkeria eza aipatu gabe lantzen dute, kontzeptuak mesfidantzak sortzen dituelako eta kolonialismo ideologikoaren adierazpentzat hartzeko arriskua dagoelako. Bestalde, azpimarratzekoa da Hegoafrika orain testuinguru horretara hurbildu dela eta erakunde palestinarrak eta haien jarduerak babesten dituela, tartean zirku hau. Hegoafrikaren laguntzarekin, aurrera egin da lankidetzaren beraren boterearen eta mendekotasunaren dinamikaren berrikuspenean. Jarduera horrek Ipar globalaren menpe ez egotea lortu zuen. Aurrekontu txiki batekin 50 ikuskizun egiteko asmoa zuten, baina 300 egin zituzten.
Iraupena	<i>Zirkua:</i> Taldearekin urtebetez lan egiteko gomendioa. <i>LARB metodologia:</i> Bi egun trinko.

Esku-hartze estrategia eta/edo metodologia(k)	Esku hartze-estrategia zirku sozialaren metodologian oinarritzen da, hezkuntzarako, arterako eta terapia egiteko tresna den aldetik, eta desplazamendu luzeko testuinguruetan gazteen garapen integrala sustatzeko pentsatuta dago. Zirkuaren bidez, gazteek trebetasun sozialak, adierazpenezkoak eta emozionalak bereganatzen dituzte, eta, hala, autoestimua, talde-lana eta gatazkak modu sortzailean eta ezbiolentoan konpontzeko gaitasuna indartzen dituzte. Era berean, topagune horietan gizonak eta emakumeak baldintza berberetan parte-hartzea sustatzen da eta haien aurkako zapalkuntza erantsien problematizazioa bultzatzen da, eta testuinguruan jarduten duten genero-bereizketako dinamikak desnaturalizatzen dira, edo gatazkei (genero-faktoreek zehazkatutakoak ere) aurre egiteko estrategia ezbiolentoen erabilera esploratzen da. Horren osagarri, LARB metodologia aplikatuko da, proposamenaren zabaltzaile bihurtzeko potentzial handiena duten pertsonak identifikatzeko eta laguntzeko. Jarduerak gaikako tailerren eta gorputz-praktiken bidez garatuko dira, eta zirku-dinamikak eta jolasak bizikidetzari, herritartasunari eta gatazken eraldaketa baketsuari buruzko hausnarketekin konbinatuko dira. Ikuspegi integral horrek osasun mentala eta estresa arintzeko osagai garrantzitsu bat barneratzen du, parte-hartzaileei gune seguru bat eskainiz emozioak bideratzeko, ongizate kolektiboa indartzeko eta indarkeriak eta prekarietateak markatutako ingurune batean lotura sozialak berreraikitzeke. Era berean, proiektuak espazio publikoaren erabilera aldarrikatu nahi du, adierazpen artistikorako eta indarkeriarik gabeko ekintzarako eszenatoki zilegi gisa. Belaunaldi gazteenak errefuxiatu-esparrurik eta indarkeriarik gabeko Palestina bat ezagutu gabe hazi dira, eta testuinguru horretan, metodologia hori eguneroko erresistentzia sinboliko bihurtzen da. Zirkoaren bidez, ekintza eredu berriak eta aldaketarako erreferenteak sustatzen dira, konfrontazio armatuaren logikatik aldenduta, eta sormenean, kooperazioan eta bakean oinarritutako alternatiba itxaropentsua eskaintzen da. Zirkuan bizipen arriskutsuak izango dituzte, baina arrisku hori kontrolatuta egongo da, ingurune seguru batean arituko dira eta. Horrek talka egingo du parte hartuko duten neska-mutilen errealitatearekin; izan ere, arrisku handia dago, baina ez dago kontrolik.
Beharrezko materialak	Jarduerak egiteko, material zehatz ugari behar dira, zirkuko praktika eta LARB metodologiari lotutako hezkuntza-dinamikak errazteko. Lehenik eta behin, zirku sozialeko materialak daude, tailerrak eta entrenamenduak garatzeko funtsezkoak direnak: malabareak egiteko pilotak, uztaiak, zintak, sokak, oreka

	elementuak, koltxonetak eta parte hartzen duten gazteen koordinazioa, konfiantza eta gorputz adierazpena lantzeko aukera ematen duten beste baliabide batzuk. Horrez gain, joko-dinamiketarako eta simulazio-ariketetarako, rol-jokoetara egokitutako gidoiak eta materialak ditugu. Hauek eguneroko egoerak aztertzeko, elkarriketa sustatzeko eta gatazkak konpontzeko estrategia ezbiolentoak probatzeko tresna pedagogikoak dira, eta kontu handiz diseinatuta daude gazteen esperientziekin konektatzeko eta hausnarketa kritikoa errazteko, arte- eta gorputz-praktikatik abiatuta. Oro har, materialek funtzio teknikoa ez ezik, sinbolikoa eta hezitzailea ere badute: sormenerako, ikaskuntzarako eta lankidetzarako euskarri ukigarria eskaintzen dute, eta, aldi berean, espazio seguruak eraikitzen laguntzen dute, gazteek beren burua askatasunez adierazteko eta beren errealitatea eraldatzeko artearen eta ekintza kolektiboaren bidez. Gune hauetan ikus daitezke gidak eta eskuliburuak, eta jardueraren misioaren inguruko xehetasun gehiago: https://palcircus.ps/en/policies-publications/ https://www.instagram.com/baitbyout.pal/
Jardueraren garapena	Jarduerak modu artikulatuan uztartzen ditu zirku sozialaren dinamizazioa eta LARB metodologia pixkanaka inplementatzea, eta formazio, praktika eta biderkatze komunitarioko prozesu integrala osatzen du. Lehenengo etapan, zirkua dinamizatzeari ekingo diogu, errefuxiatu-esparruetako gazteei zuzendutako tailer erregularren bidez. Espazio horietan zirku-diziplinak landuko dira —oreka, akrobazia edo malabarismoa, adibidez—, konfiantza, enpatia eta gorputz-adierazpena sustatzen dituzten talde-dinamikekin eta jolas kooperatiboekin batera. Jarduera horien helburua da parte-hartzaileek sentitzea talde baten parte direla, autoestimua indartzea eta gaitasun sozioemotionalak garatzea, gorputza eta emozioak ingurune seguru eta sortzailean kudeatzen ikasten duten bitartean. Aldi berean, LARB metodologia sartuko da, esperientzia zabaltzeko potentziala duten gazteak identifikatu eta laguntzeko. Behaketa- eta mentoretza-prozesu baten bidez, konpromisoa, lidergoa eta gizarte-sentsibiltatea erakusten duten parte-hartzaileak hautatzen dira, eta horiek rol aktiboa hartzen hasten dira tailerrak eta jarduerak errazteko. Bigarren fase honetan, prestakuntza espezifikoak eman behar da bizikidetzaren, indarkeriarik gabeko komunikazioaren eta pedagogia parte-hartzailearen balioetan, eta, hala, kanpamenduko beste gune batzuetan metodologia errepikatze eta egokitzeko gaitasuna indartu behar da.

	Jarduera amaitzeko, taldean partekatuko dugu landutakoa. Jarduera zabaltzeko hautatutako gazteek aurkezpenak, tailer irekiak eta espazio publikoko hainbat jarduera dinamizatuko diuzte. Esku-hartze horiek parte-hartzaileen talentua eta sormena ikustarazteaz gain, zirkua gizartea eraldatzeko tresna gisa aldarrikatzen dute, itxaropenaren, bizikidetzaren eta erresilientziaren narratiba berriak sortuz, historikoki indarkeriak eta bazterketak zeharkatutako testuinguru batean.	
Ikusitako arriskuen (A), zailtasunen (Z) eta lorpenen (L) analisia. Zailtasun nabarmenik egonez gero, haiek gainditzeko mekanismoak adierazi.	A	Testuinguru horretan, okupazioa eta apartheid-sistema etengabe eta modu intentsiboan erabiltzen ari dira azken hamarkadetan, eta indarkeria sistematikoak jarraitzen du eta arriskuan jartzen du errefuxiatu-esparruetan egin den ibilbide luzea eta lan handia. Etenga gerta daiteke programa honetako edozein parte-hartzailek bere buruari, familiari edo komunitate zabalarari zuzendutako indarkeria-adierazpen desberdinengatik parte-hartzea eten behar izatea (aita espetxeratzea, anaia hiltzea, atxilotzea, etab.) Beste arrisku bat da etorkizuneko ikuspegiarik eza, konponbide politikorik eza, testuingurua gero eta okerragoa delako. Gainera, arrisku fisikoak ere badaude, hala nola, hilketa, barne desplazamendua eta Tulkarem bezalako Iparraldeko hirien suntsiketa: erasotua izan da eta azpiegitura gabe geratu da.
	Z	Ez dago irtenbide politikorik, eta horrek zaildu egiten du iraunkortasuna eta tokian tokiko jarduera askoren zentzua. Palestinan egiten den lana nazioarteko lankidetzaren baitan dago. Zonaldearen testuinguruan zaila da, baina beharrezkoa genero-segregazioari aurre egitea.
	L	Zenbait metodologia estigmatizatuta zeuden, batez ere gorputzarekin erlazionatzen badira, eta orain asko baloratzen dira eta publiko asko hurbiltzea lortu dute. Eredu horietan bizi diren pertsonentzako alternatibarik ez egoteak eragina izan du arrakasta horretan.
Zein aldaketa edo eraldaketa sustatu edo sortu ditu esperientzia honek?	Esku-hartze honen atzean dagoen aldaketa-teoriak aldaketa indibidualak eta kolektiboak bultzatu nahi ditu karparen azpian, txertatuta dagoen gizartean ikusten denaren (hala nola genero-segregazioa edo gatazkei aurre egiteko indarkeriazko estrategien erabileraren normalizazioa) aurka dauden aldaketak. Hala, talde misto batzuk bultzatu ditu proposamenak. Artea edo kirola metodologia ezbiolento gisa erabiltzea lortu da.	

Ikasitako lezioak, etorkizunerako gomendioak eta gazteekin lan egiteko egokitzapena.	Esku-hartzearen helburua eta potentzial politikoa serio hartu behar dira, jarduerak benetan ahaldundutzaileak izan behar dira. Horregatik ikasi genuen erresilientziaren kontzeptua erabiltzeari uzten, aldaketak modu baketsuan bultzatzeko desira sustatzen hasteko; hain zuzen ere, erresilientzia kontzeptuak lotura handia du zailtasunei irimotasunez aurre egiten ikasteko ideiarekin, eta desmobilitatzailea da. Tresna artistikoak erabiltzeak irisgarritasuna errazten du, eta, horrekin batera, ez-gaitasunak dituzten pertsonak parte har dezakete. Jarduera horiek ahaldundutzaileak dira, izan ere genero, klase eta abarregatik aintzat hartu ohi ez diren pertsonen ardurak ematen baitzaizkie. Gizarte patriarkal bati buruz ari gara, eta gizarte honetan gazteek ez dute lidergorik. Gure esku-hartzean, aldiz, rolen eta arduren txandakatzea sustatzen da. Esku-hartzearen protagonistek erabaki dute bideratzaile izango diren pertsonak gaitzeko eta goitik behera inposatu gabeko erabaki kolektiboak hartzeko prozesuetan murgiltzea. Gauza deserosoez hitz egiteko espazioak sortzen dira. Entrenatzaile baten anaia erail zuten eta mendeku eta entrenatzaileak justizia nahia adieraz zezala errespetatu zen, eta elkarrekin justiziaren diskurtsoa sortu zen.
---	---

Kolonbia

Konfiantza eraikitzea eta elkarrekiko onarpenera sustatzea

Lantzen diren BKren gaiak	X	Genero-berdintasuna eta indarkerien prebentzioa (batez ere, sexualak). Gatazka armatuaren biktimei ordain integrala ematea.
		Ingurumena zaintzea
		Giza eskubideen defentsa
		Kulturartekotasuna eta diskriminazioaren aurkako borroka
		Pobreziaren aurkako borroka
	X	Indarkeriarik eza/gatazkei modu baketsuan aurre egitea/bestelako eduki espezifikoak. (Bakearen kultura zentzu zabalean eta erlaziozko ikuspegi leheneratzailea)

Lantzen dituen beste gai batzuk	- Kulturartekotasuna eta diskriminazioaren aurkako borroka. - Giza eskubideen defentsa. - Oroimen historikoa berreskuratzea. - Parte-hartze komunitarioa eta gizarte-sarea indartzea.
Helburua/k	Indarkeriak markatutako komunitateei konfiantza berreraikitzen laguntzea eta biktimen eta arduradunen arteko errekonozimendueremuak irekitzea, elkarriketaren bidez bizikidetzak baketsuaren eta sendatze kolektiboaren alde eginez.
Proiektuaren hartzaile diren edo lotura duen biztanleria	- Kolonbiako gatazka armatuaren biktimak, gehienak emakumeak (indarkeria sexualen biktimak, horietako asko afrikar ondorengoak, indigenak eta nekazariak) - Indarkeria-gertaeren erantzule gisa parte hartzen duten gudari ohiak. Aldentzen gaituzten etiketak alde batera utzi nahi dituz proiektuak, kaltea aitortzera, gertatutakoa konpontzera eta berriro gerta ez dadin bermatzera bideratzeko.
Kokapena edo esku-hartze eremua	Montes de María eskualdea. Kolonbiako Karibeko Bolibar eta Sucre departamenduetako 15 udalerrik osatzen dute. Eremu formaletan nahiz eremu komunitario ez-formaletan eta informaletan lan egiten da
Ba al dago esperientzia honek oinarri duen Bakearen Kulturaren gaiaren edo ardatzaren lorpenen egoera hobeto ulertzeko aukera emango digun informazio gakorik?	Gatazka armatuak gehien kolpatutako eremuetako bat izan zen Los Montes de María, eta ondorio larriak ekarri zizkien nekazariei, komunitate afrikar ondorengoei eta, bereziki, emakumeei. <i>Cicatrices de la guerra en las colombianas</i> (Gerraren orbainak emakume kolonbiarren) bezalako txostenek agerian uzten dute indarkeria sexualak eskualdean dituen ondorio suntsitzaileak, baita biktimek justizia eta erreparazioa lortzeko dituzten oztopoak ere. Erreferentziak: Gerraren orbainen txostenak. "Cicatrices de la guerra en las colombianas" (Gerraren orbainak emakume kolonbiarren) lanak Los Montes de Mariako (Kolonbia) gatazkan sexu-indarkeriak izan dituen eraginak aztertzen ditu: https://www.mpd.org/sites/default/files/004.%20violencia-sexual-mujer-colombia.pdf Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Espainiako Lankidetzako Ministerioaren herrialde-fitxa: https://www.exteriores.gob.es/documents/fichaspais/colombia_ficha%20pais.pdf
Hemen proposatutako esku-hartze	Prozesua 12 eta 18 hilabete arteko epean egitea aurreikusten da, eta denbora horrek aukera ematen du biktimekin eta arduradunekin modu berezian lan egiteko, elkarriketa-topaketak

ibilbidearen iraupena	prestatzeko eta komunitateari ondorengo urratsetan laguntzeko. Benetako iraupena segurtasun-baldintzen eta komunitateen erritmoen arabera da.
Esku-hartze estrategia eta/edo metodologia(k)	Ikuspegi psikosozial eta sozio-afektibotik (sentitu-pentsatu-ekin) abiatzen da proposamena, eta parte hartzen duten pertsonak jartzen ditu erdigunean. Metodologia hiru fasetan banatzen da: biktimekin eta arduradunekin bakarka lan egitea, elkarrekin prestatzea eta, azkenik, elkar aitortzeko topaketa seguru bat egitea (Biktimekin bakarrik). Esku hartzen den lurraldean gertatutako indarkeriak identifikatzea, biktimen kontakizunetan oinarrituta, eta indarkeria horiekin lotuta dauden eta pertsona horiei interesatzen zaizkien gaiak aitortzea, bizi diren testuinguruan bizikidetza baketsua eraikitzea bidean aurrera egiteko. Prozesuak zenbait urrats ditu: biktimekin eta indarkerien arduradunekin bakarka lan egiten da, eta bi aldeek hala nahi badute eta prest badaude soilik, haien arteko azken topaketa segurua egiten da: - (Biktimekin bakarrik) Esku hartzen den lurraldean gertatutako indarkeriak identifikatzea, haien kontakizunetan oinarrituta, eta bizikidetza baketsurako bidean aurrera egiteko beharrezkotzat jotzen dituzten gaiak aitortzea. - (Biktimekin bakarrik) Jasandako kaltearen aitorpenari, erreparazio-neurriari eta berriro ez gertatzeko bermeei lotutako beharrak zehaztea. - (Arduradunekin bakarrik) Indarkeria erabili zutenek indarkeria horiek onartzea erraztea. - (Bi aldeekin) Topaketa segururako aukerak sortzea, komunitatean konfiantza eta bizikidetza baketsua berreraikitzeke. Ikuspegi psikosozialak eta esparru sozioafektiboak (sentitu-pentsatu-ekin) zeharkatzen dute metodologia. Konfiantzaren eta kulturen arteko elkarbizitzaren eraikuntza protagonistek definitu behar dute, eta ez dinamizatzaileek. Prozesuak mobilizazio emozionala errazten duten teknikak, jasandako edo eragindako kalteei buruzko hausnarketa kritikoa eta sortzen ari diren beharrei erantzuteko ekintzak biltzen ditu. Hori guztia, ibilbidean sakontzeko aukera ematen duten erritmo geldo eta mailakatuak errespetatuz, elkarriketa-gune seguruak sortuz eta parte-hartzea beti borondatezkoa izatea bermatuz. Zaintza bermatzeko, gomendatzen da topaketetan ura eta elikagaiak izatea, eta saio bakoitza hastea erabateko presentzia eta tentsioen askapena erraztuko duten dinamikekin. Horretarako, hau proposatzen da:

	Energia-zentroak: Topaketa bakoitzaren hasieran, aretoaren erdian, naturako elementu batzuk jarriko dira, lurraldearekiko esker ona adierazteko. Pertsona bakoitzari espazio partekatuari buruzko objektu, desio edo asmo pertsonal bat ekartzeko gonbita egingo zaio. Zentro horretan ura jartzea eta olio aromatikoak erabiltzea gomendatzen da, atsedean hartzeko, energiak bideratzeko eta tentsioak murrizteko espazioa sortzeko. Ariketa sinboliko bat da esku-ahurretan tanta batzuk banatzea, igurztea eta sortzen den energia sentitzea, pertsona bakoitza gonbidatuz tanta horiek beldurra edo tentsioa nabaritzen duen bere gorputzeko lekura eramatera, zauritutako emozio hori antzemateko eta eskertzeko. Aulkien zirkulua mahairik gabe: Espazioa zirkuluan antolatuko dugu, eta erdigunea “zentro energetikoa” izan dadin libre utziko dugu. Horri esker, kide guztiek elkarri begietara begiratu ahal izango diote eta baldintza berdinetan sentitu ahalko dira. Dinamizatzailerak puntu desberdinetan batuko dira zirkulura, eta ez dira elkarrekin jarriko, prozesua horizontalagoa izan dadin. Loreen marrazkia: Parte-hartzaile bakoitzak hainbat petalo dituen lore baten irudia jasoko du. Erdian bere izena idatziko du, beheko petaloan bere ametsak eta goikoan bizitzan gehien eragin diona, positiboa edo negatiboa. Loreek espazioa apainduko dute, pertsona bakoitzaren berezitasuna ospatuz. Amaitzean, parte-hartzaileek loreak aurrez aurre jarriko dituzte, eta gelatik ibiliko dira besteenak ikusten. Gero, lore guztiak lurrean utzi eta elkarrekin zapalduko dituzte, jasandako biolentzia sinbolizatuz: “Norbaitek indarkeria jaso eta eragiten duenean, bizitza zapalduko baliote bezala da”. Ondoren, talde txikitan, lore berriak berreraikiko dira zatiekin, itxaropena, kaltetutakoa berregiteko aukera eta zentzuaren eraikuntza kolektiboa irudikatuz. Sorkuntza berri horiek paretan jar daitezke, oroimen eta aitormen gisa. Une horrek nortasun zurrunen desatxikimendua ere sinbolizatzen du, hala nola “biktima pasibo” edo “errukirik gabeko erasotzailearena”, nork bere burua modu gizatiarrago eta konplexuagoan aitortzeko aukera izan dezan.
Beharrezko materialak	Orriak, kartulinak, errotuladoreak, koloretako arkatzak, guraizeak eta kola. Loreen irudiak edo beste baliabide grafiko batzuk dinamiketarako. Naturgunean bildutako elementuak: haziak, ura, loreak, harriak eta kandelak. Erlaxatzeko eta tentsioak askatzeko ariketetarako olio aromatikoak edo bestelako euskarriak.

	Aurrez aurreko zirkuluak eta topaketak antolatzeke aukera ematen duten aulki mugikorak. Prozesua dokumentatzeko koadernoak edo grabazio-gailuak (aurrez baimen informatua lortuta). Ikus-entzunezko oinarritzko ekipoa. Mokadu errazak, topaguneetan jan ahal izateko.
Jardueraren garapena	Jarduera bakan batzuk baino gehiago, kontu handiz diseinatutako ibilbidea da, biktimei entzutetik hasi eta arduradunekin modu seguruan topo egiteraino aurrera egiten duena, betiere alderdi guztien zaintza emozionala, parte hartu nahia eta parte-hartze aktiboa integratuz. Fase bakoitzak berariazko helburu bat du, eta, jarduera osoarekin bat egitean, konfiantza eraikitzen, elkar onartzen eta adiskidetzen laguntzen du. Biktimekin edo bizirirauleekin indarkerien ezaugarriak zehaztea Biktimen kontakizunetan oinarrituta, jasandako indarkeriazko ekintza nagusiak dokumentatu eta sailkatuko dira. Horri esker, bizikidetzak baketsurako bidean, haientzat interesgarrienak diren gaiak zehaztu daitezke. Hezkuntza-testuinguruetan, neskek eta mutilek jasaten dituzten eskola-indarkeriak identifikatzea nabarmenduko da. Ekintza honek gertatutakoaren oinarri legítimo eta partekatua eraikitzea ahalbidetzen digu, biktimen ahotsetik, ondorengo fase guztiak bideratzeko. Egia eta erreparazioa bermatzeko premiak identifikatzea Ikuspegi psikosozialetik, erreparatuta sentitzeko biktimek zer behar duten eta arduradunei zer galdera egingo lieketen aztertzen da. Biktimen eskaera etiko, politiko eta emozionalak erdigunean kokatzeak, prozesuaren ibilbidea zehaztea ahalbidetzen du. Entzute enpatikoa indarkeriazko gertaeren arduradunekin Bortizkerien inguruan hausnartuko dute arduradunek, egindako ekintzak eta horien eraginak aitortuko dituzte, eta aurrez landutako karakterizazioari aurre egingo diote. Beren ibilbidean bertan jasan ahal izan zituzten indarkeriak ere aintzat hartuko dira. Erantzukizunen aitorten zintzoa bultzatzea, narratiba justifikatzaileak desagitea eta elkarriketarako esparru komun bat prestatzea da entzutearen ekarpen handiena. Biktimen eskariak berrikustea eta haiei erantzutea Erantzuleek biktimen galderei eta beharrei erantzuten diete, lagunduta eta kontu handiz, kalte handiagoa saihesteko. Ekintza honetan, hasierako erreparazio sinbolikorantz egingo da aurrera, eta konfiantza sortuko da arduradunek errespetuz erantzuteko duten jarreran. Biktimekin partekatzea eta baliozkotzea

	Arduradunen erantzunak biktimekin partekatuko dira, haientzat onargarriak diren egiaztatuz. Bi aldeak elkarrekin topo egiteko prestatuko dira. Hemen, biktimek prozesuaren kontrola izatea eta jarraitzeko seguru sentitzea ziurtatuko da, haiek izan daitezen prozesuaren erdigunea. Biktimen eta arduradunen arteko topaketa <i>Adiskidetzeko</i> topaketetan, biktimek eta arduradunek aurrez aurre hitz egingo dute. Ilaratan antolatuko dira, aurrez aurre, eta energia-zentro sinbolikoa izango dute. Aldez aurretik adostutako galderak egingo dira, eta zaintza-arauek markatutako giroan erantzungo dira. Barkamenak, agertzen bada, benetakoa izan behar du, eta ez errepikatzeko konpromisoak egon behar dira. Jarduera honek errekonozimendu, erreparazio sinboliko eta elkarbizitza baketsurako konpromisoak eraikitzeko ekintza kolektiboa ahalbidetuko du. Artikulazio instituzionala eta komunitarioa Prozesua eskualdeko plataformekin (Solaskidetza eta Hitzartze Mahaia, Bakea Eraikitze Eskualde Espazioa, liderren eta defendatzaileen Berme Mahaia) eta estatu-erakundeekin (Bakerako Auzitegi Berezia edo JEP, Desagertutzat Ematen diren Pertsonak Bilatzeko Unitatea edo UBPB, Egia Argitzeko Batzordea edo CEV) integratuko da. Horrek aukera emango du kasuak dokumentatzeko, txostenak egiteko eta prozesuari iraunkortasun politiko eta soziala emateko jarraipena eta laguntza bermatzeko, eragina hurbileko taldetik haratago zabalduz eta lurraldeko bake agenda indartuz. Deskribatutako fase bakoitza etengabeko bide baten zati bezala pentsatu zen. Bide horrek kaltearen memoriatik konfiantza eta adiskidetzea eraikitzea igarotzeko aukera eman nahi du. Oro har, etapa horiek ziurtatu zuten biktimak entzun eta prozesuaren erdigunean jartzea, erantzuleek beren ekintzak zintzotasunez hartzea, eta elkarrenganako errespetuan eta zaintzan oinarritutako topaketa baterako baldintza seguruak sortzea. Aldi berean, biktimekin etengabe baliozkotzeak erabaki bakoitzaren kontrolari eutsiko ziotela bermatu zuen, birbiktimizazioa saihestuz eta euren agentzia indartuz. Azken topaketa ez zen soilik errekonozimendu eta erreparazio sinbolikorako gune bat izan, ez errepikatzeko konpromisoen oinarria ere izan zen. Azkenik, erakunde eta plataforma komunitarioekin artikulatzeak iraunkortasuna eman zion prozesuari, eta haren ikaskuntzak lurralde-esparrura eta esparru politikora zabaltzea ahalbidetu zuen, eragina zuzenean inplikaturako taldeetatik haratago hedatuz.
Hausnarketa	Prozesu horrek erakutsi zuen adiskidetzea ez dela egun batetik bestera eraikitzen, baizik eta bide geldo eta zaindua egitea

	eskatzen duela, eta urrats bakoitzak zentzu propioa duela eta hurrengorako lurra prestatzen duela. Biktimak entzuteak eta haien beharrak onartzeak giza duintasuna erdigunean jartzea ahalbidetu zuen, eta haien ahotsak ibilbidearen gidari nagusi gisa baliozkotzea. Aldi berean, arduradunei entzuteko espazioak eskaintzeak erruak bere gain hartzeko, isiluneak desmuntatzeko eta biktimario gisa bakarrik ikusiak izan zirenak humanizatzeko aukera zabaldu zuen. Azken topaketa, itxiera baino gehiago, elkarbizitzarako modu berrien abiapuntua izan zen. Bertan, kaltearen aitortza eta ez errepikatzeko konpromisoak konfiantza hazi bihurtu ziren. Eragile komunitario eta instituzionalekin artikulatzeak bizitakoa zabaltzea bermatu zuen, bakea egunerokotasunean, memoria partekatuan eta indarkeria ez errepikatzeko borondate kolektiboan sostengatzen delako ideia indartuz. Azken batean, prozesu horrek berekin ekarri zuen ikastea bakea ez dela gerrarik eza soilik, baizik eta harreman gizatiarragoak eraikitzea, errespetuan, egian eta itxaropen partekatuan oinarrituak.	
Ikusitako arriskuen (A), zailtasunen (Z) eta lorpenen (L) analisia	A	Inguruan eragile armatuak daude. Elkarrizketa guneak tentuz kudeatzen ez badira birbiktimizatzeko aukera dago. Parte hartzen duten biktima edo gudari ohiekiko estigmatizazio soziala. Laguntza instituzionalik edo finantziario jarraiturik ez izateagatik eteteko arriskua
	Z	Lurraldean aktore armatuak jarraitzea. Prozesuan parte hartzen ari diren gudari ohien aurkako mehatxuak. Zenbait parte-hartzailek beren burua biktimatzat edo erantzuletzat aitortzeko izan dituzten erresistentziak.
	L	- Tresna kultural eta artistikoak erabiltzea prozesuaren bitartekari gisa, eta memoria historikoa txertatzea jardueretan. - Elkarrizketa-gune ugari egin ziren, bai biktimek bai gudari ohiek parte hartu zuten. - Konpromiso komunaren agendak eraikitzea, lurraldean konfiantza eta bizikidetzak baketsua indartzeko; besteak beste, <i>“Defendamos la Vida y la Paz en Montes de María”</i> [Montes de Marían bizitza defendatu dezagun] ekimena. - Sexu-indarkeriaren eta desagertze behartuen 30 kasuren dokumentazioa, erreparazio integraleko ibilbideen barruan. - Txosten xehatu bat egitea, bake-elkarrizketen lurralde-banaketan aurrera egiteko gomendioekin. - Ekarpina Los Montes de Mariaren Memoriaren Museo Ibiltariari, sexu-indarkeriei buruzko areto tematiko bat barne.

	- Emakumeen eta gazteen integrazio aktiboa eragin politikoko prozesuetan eta lurralde-bakearen eraikuntzan. Izandako lorpenen gakoak - Parte-hartzaileen arteko konfiantza eta errespetuan oinarritutako espazioak sortzea. - Etengabeko laguntza tekniko eta psikosoziala, biktima eta arduradunekiko begirada erabat enpatikoak gidatuta. - Estatuko zein tokiko erakundeekin aliantza estrategikoak ezartzea, prozesuari indarra eta iraunkortasuna emateko.
Zein aldaketa edo eraldaketa sustatu edo sortu ditu esperientzia honek?	- Indarkeriazko gertaera nagusien erantzule diren gudari ohien eta biktimen arteko konfiantza indartzea. - Borrokalari ohien ikuspegi humanizatu eta estigmatizatu gabea. - Gudari ohiek erantzukizunak publikoki aitortzeko aurrerapausoak. - Eskualdean berradiskidetzeko eta landa-garapenerako agenda komunak sustatzea, lurralde-garapenerako planak ezartzen laguntzeko. - Komunitateko tentsioak murriztea. - Trantsizio-justiziako prozesuetan emakumeen parte-hartzea indartzea. - Bakearen Kultura sustatzea eta indarkeriak ez errepikatzea.
Ikasitako lezioak, etorkizunerako gomendioak eta gazteekin lan egiteko egokitzapena.	- Ezinbestekoa da biktimekiko zein kaltearen arduradunekiko begirada psikosoziala eta enpatikoa aplikatzea. Horrek esan nahi du onartu behar dela testuinguru sozialek, kulturek, ekonomikoek eta politikoek pertsona bakoitzaren garapenean, portaeran eta ongizatean duten eragina. Halaber, ulertu behar da indarkeria aurre egiteko mekanismo gisa erabiltzea indarkeria sustatzen duen sistema batean ikasten dela, eta arazoak sor daitezkeela, eta gatazkei modu baketsuetan aurre egin diezaiekegula. - Adiskidetze-prozesuek denbora eskatzen dute, eta hainbat etapa igaro behar dituzte presarik gabe: erantzuleek kaltea aitortzea, elkar gogobetetzeko akordioak ezartzea erreparaziorako, eta ez errepikatzeko konpromisoa hartzea. Hori lortzeko, finantzaketa etengabea eta erakundeen laguntza behar dira, esperientziaren jasagarritasuna eta hedapena ziurtatzeko. - Funtsezkoa da ikuspegi bereizgarriak integratzea, emakumeek eta komunitate etnikoek jasandako indarkeria partikularrak aitortzeko. - Bakea lortzeko, ezinbestekoa da gerran parte hartu zuten eragile guztiek modu aktiboan parte hartzea. Espainian gazteekin moldatzeko gomendioak Metodologia horiek gazteekin lantzeko, ezinbestekoa da mugimenduan eta interakzioan oinarritutako dinamikak erabiltzea,

	elkar ezagutzea, lasaitzea eta jarduerari arreta ematea errazteko. Belinda Hopkinsen <i>Elkarrizketa Denboren</i> proposamenari jarraituz, zera gomendatzen da: - Topaketa ez-misto bakoitza aurkezpen-erronda batekin hastea (izena, gustatzen zaidan zerbait, ongi ematen zaidan zerbait). - Dauden loturak indartuko dituen jarduera bat proposatzea. Adibidea: biribilean jarrita, posizioak trukatu behar dituzte ezaugarri komun bat partekatzen dutenek, “Haizeak gogor jotzen du eta duen pertsona eramango du” agindua jarraituz. Elkarrizketa uneek tentsiorik sor ez dezaten, komeni da saio bakoitzaren hasieran elkarbizitzarako oinarrizko akordioak ezartzea eta taldeari hitza erregulatuko duen objektu bat eskaintzea: Objektua duenak bakarrik hitz egiten du, gainerakoek entzun egiten dute. - Hitz egitea beti izango da borondatezkoa. - Pertsona guztien ardura da elkarrizketa zaintzea. Indarkeriak identifikatzeko fasean, erresistentziak sortzen badira, parte-hartzaileek “indarkeriatzat” zer ulertzen duten arakatuz has daiteke, zentzu zabalean, gaur egun polarizatzaileak izan daitezkeen kontzeptuak erabili gabe (feminismoa, adibidez). Horretarako, <i>Zapalduen Antzerkiaren</i> teknikak erabil daitezke, hala nola, irudi antzerkia. Bertan, pertsona bakoitzak bere gorputzarekin irudikatzen du indarkeriatzat hartzen duena, eta taldeak esanahiak behatu, interpretatu eta horiei buruz hitz egiten du. Hauek ere erabil daitezke: Zirkulu zentrokideak sortzea eta gazteak aurrean duten pertsonarekin bikoteka jartzea, mugituz eta bikoteak txandakatur joatea eta gaiari buruzko galderak erantzutea elkarri. Talde progresiboen ariketak (2, 4 eta 8 pertsonakoak), txanda bakoitzean “indarkeriarekin” lotutako 3 hitz gako adostea, adostasun komun batera iritsi arte. Taldeei kolektiboki eraikitako indarkerien saikapena itzultzean, nabarmendu behar da esperientzia errealak direla, beren testuinguruetatik hurbil daudenak. Urruneko adierazpenetan fokatu beharrean, indarkeria horiek beren baitan, beren ikastetxean eta komunitatean nola identifikatzen dituzten galde daiteke, gero datu egiazkoen bidez dimentsio globala nabarmenduz. Testuinguruan ageriko indarkeriarik sumatzen ez bada, baliagarria da adierazpen soutilagoetan edo sinbolikoagoetan jartzea fokua, ezinegona sortzen duen edo giza beharrak betetzea eragozten duen edozein egoera indarkeria gisa onartzen lagunduz.
--	--

	Neskenganako indarkerien erantzule diren gizonekin, eurek pairatutako indarkeriak identifikatzea proposatzen da, gero noizbait beste pertsona batzuengan indarkeriarik erabili duten jakiteko. Kontzeptu horietan alfabetatze-maila txikiagoa duten taldeetan, ikusizko materiala erabil daiteke, esaterako, karta ilustratuak (adib. www.culturarestaurativa.com), emozioak eta beharrak lotzen laguntzeko. Genero rol zurrinak eta espektatiba itogarriak inposatzen dituen ordena sozialaren aurrean ondoezak arakatzea ere gomendagarria da, “Maskulinitatearen eta feminitate tradizionalaren kutxa” bezalako dinamikak erabiliz, taldearen aniztasunera egokituta. Zirkulu energetikoen proposamena kulturalki arrotza bada, sinboloak dituzten kartak banatu daitezke, pertsona bakoitzak prozesurako bere esker ona edo nahia ondoen adierazten duena aukera dezan. Errespetuzko elkarriketa sustatzeko, elkarriketa bakoitza Belinda Hopkinsen Hitz Zirkuluaren arabera egitura daiteke (ikus baliabidea: https://www.encercle.cat/wordpress/wp-content/uploads/2020/12/PRACTICAS-RESTAURATIVAS_2020.pdf). Biktimak erruduntzat hartuko balira unerren batean, elkarriketa gelditzea, errespetu arauak gogoratzea eta tentsioak askatzeko dinamika bat erraztea gomendatzen da, adibidez, olio usaintsu tantak erabiltzea gorputza erlaxatzeko. Halaber, beldurren eta onarpenen inguruko hitz-zirkulu bat antola daiteke, edo “Beldurak eta itxaropenak” dinamika egin daiteke, parte-hartzaile bakoitzak espazioan seguru sentitzeko zer behar duen hausnar dezan.
--	--

Jardunbide egokiak “Bai Bakeari” proiektuaren esku-hartze eremura egokitzeko gomendioak

Palestinako Zirku Eskola eta rol jokoak

Arte eszenikoak eta zirku soziala bitarteko ezin hobeak dira egoera zaurgarrian dauden gazteen artean konfiantza, diziiplina eta lankidetzat indartzeko. Rol-jokoak txertatzeak aukera ematen du haurrek hainbat ikuspegi esperimintatu eta bestearen lekuan jartzen ikas dezaten, eta, hala, enpatia-trebetasunak eta gatazkak indarkeriarik gabe konpontzeko gaitasunak gara ditzaten. Praktika horiei esker, normalean erreprimitu edo errieta egiten zaien emozioak adierazteko aukera emateaz gain (adibidez, bideratzaileetako baten anaiaren heriotzagatik mendeku-nahia sentitzea), segurtasun apur bat duten espazioak sortzen dira oso testuinguru bortitz eta etsigarrietan, eta, gainera, elkarrekin alternatibak pentsatzea, agentzia-zentzua berreskuratzea (zerbait egiteko gaitasuna izatea), espazio hori nolakoa izatea nahi duten erabaki bateratuak hartzea, komunitatea zaintzea eta, diskurtso menderatzaileak gaindituz, gauza

deserosoei buruz hitz egitea ahalbidetzen da. Neskek eta mutilek hainbesteko segregazioa dagoen inguruneetan berdintasunezko baldintzetan parte hartzeak eta elkarlanean aritzeak aukera ematen du rol tradizionalak zalantzan jartzeko eta hausteko, modu nahiko naturalean eta behartu gabe.

Kolonbian konfiantza eraikitzea eta elkarrekiko onarpena sustatzea

Funtsezkoa da hainbat kultura-jatorritako gazteen artean konfiantza eta elkarrekiko onarpena indartuko duten dinamikak sortzea, Espainiako hainbat auzotako tentsioak eta bazterketak prebenitzeko. Elkarbizitzak, proiektu kolaboratiboak edo **helburu komunak eta dinamika kooperatiboak planteatzen dituzten bizitza istorioak kontatzeko tailerrak bezalako espazioek aurreiritziak eraisten eta enpatia loturak sortzen lagundu dezakete.**

Prozesu hauetan, funtsezkoa da bildutako taldean dauden desberdintasunak eta elementu komunak ikusaraztea, **errespetuan, aniztasunean eta partaidetza partekatuan oinarritutako identitate kolektiboa sendotzeko, bildutako identitate sozial bereizien aniztasuna aitortzeari utzi gabe.** Hala, taldeko kide bakoitzak bere identitate anitzak ezagut ditzan sustatu nahi da: lehen mailako familia- edo komunitate-herentziaren emaitzak eta kulturen arteko topaketa honetatik eratorritakoak.

Era berean, taldean biltzen badira iraganean (egungo adierazpenekin) bi taldeen (historikoki zapaltzaileak eta historikoki zapalduak) arteko zapalkuntza-sumisio harremanen sortzaile rol bereizia izan zuten kolektiboen ordezkariak, garrantzitsua izango da **batzuen arbasoek egindako eta besteen arbasoek jasandako indarkeriak ikusarazteko espazio seguru bat irekitzea.** Horren bidez, aukera bat eskainiko da talde nagusiek historikoki inposatutako narratiba bakarraren hausturarako eta kaltea eta ez errepikatzeko konpromiso kolektiboa aitortzeko, eta **oinordetzan jasotako botere-dinamika horien egungo adierazpenak sumatuko dira, talde horretako edozein kidek aitortu ahal izan dezan, nahita izan ez den arren, hura gauzatzeari egin dion ekarpena.**

Halaber, garrantzitsua izango da **argi eta garbi adieraztea, kalterik eragin gabe, kulturen arteko topaketaren ondorioz sortutako gatazka naturalak,** hau da, ustekabetik sortutako beldurrak edo mesfidantzak, beste taldeen ezagutza sakonik eza edo gorrotoa sustatzen duten horiek hedatutako informazio faltsuetatik eratorritakoak.

Beste praktika posible batzuk

Gomendio horiez gain, proiektu honi lotzen gatzaizkion MPDLko eta NOVACTeko hezitzaile-taldeak tailerren gidoi batzuk proposatuko ditugu jarraian, hemen erakusten dugun hezkuntza-lanaren pizgarri izan daitezen:

JARDUERA: Nire silueta (hasierako jarduera)	
Helburua	1. Nork bere burua ezagutzea eta taldean hausnartzea bultzatzea, pertsonak generoaren arabera nola sozializatu diren aztertzea, eta besteekin erlazionatzeko modua baldintzatzen duten aginduak, sinesmenak, emozioak eta pentsamenduak identifikatzea. 2. Jardueraren helburua da harremanak indartzeko eta emozioak partekatzeko une bat sortzea, ondoren genero-justiziari eta bakea eraikitzeari buruzko lanari ekiteko.
Materialak	Paper handia edo kartulina bat (A2 edo antzekoa) pertsonako, errotuladoreak, koloretako arkatzak, boligrafoak. Aukerakoa: Zinta itsasgarria edo siluetak jartzeko espazioa horman.
Iraupena	20-30 min
Garapena	Partaide bakoitzak bere silueta marraztuko du. Esaldi edo galderen zerrenda emango zaie, erantzuna siluetaren barruan, gorputzaren atal ezberdinetan, idazteko. Burua: Zertan ari naiz pentsatzen normalean? Bihotza: Zerk hunkitzen nau edo zerk sentiarazten nau bizirik? Eskuak: Zer egiten dut ondo? Sorbaldak: Zein gauzek zamatzen naute? Ahoa: Zer esan nahiko nuke eta batzuetan ez naiz ausartzen? Oinak: Norantz joan nahi dut edo zer aldatu nahiko nuke? Amaitzen dutenean, siluetak paretan edo lurrean jarriko dira. Haien artean ibiltzera gonbidatuko zaie, beste pertsona batzuek idatzitakoa begiratu eta behatzera. Borobilean, elkarrizketa bat hasiko da, sortu zenetik abiatuta: ● Zer gauza errepikatzen dira gure artean? ● Zer alde erakusten dituzte ezkututzen ditugun emozio edo pentsamenduek? ● Zer itxaropen edo agindu agertzen dira gu konturatu gabe? ● Zer behar dugu garenarekin askeago edo baketsuago sentitzeko?
Hausnarketa	● Zer ikasi dut neure buruaz nire silueta egitean? ● Zer esaldik pentsarazi didate nola hezi nauten edo nigandik zer espero den? ● Zer eraldatu nahiko nuke libreago eta besteekiko orekan sentitzeko? ● Zer ikusi dugu generoak “izan behar dugula” sentitzen edo pentsatzen dugun horretan duen eraginari buruz? ● Nola babes dezakegu elkar, harreman berdinzaleagoak eta

	zainduagoak eraikitzeko?
--	--------------------------

JARDUERA: Feminismoari entzun	
Helburua	1. Gazteei protagonismoa ematea, beren bizipenei eta sinesmenei ahotsa jar diezaioten. 2. Epaiketarik gabeko espazio bat sortzea, feminismoari buruzko sinesmen ezberdinak azaltzeko. 3. Modu deliberatuan entzute aktiboa sustatzea, norberaren sinesmenen aldeko zein kontrako argudioak entzuten ikasiz. 4. Pentsamendu kritikoko hausnarketa-gune bat sortzea.
Materialak	Aulkiak. Hautazkoak: orriak eta errotulagailuak
Iraupena	40- 60 min
Garapena	Arrainontziaren formatuko talde-teknika erabiliko dugu: taldea bi azpitaldetan banatuko da, bata hiztunena eta bestea txandakatuko diren entzuleena. Asmoa da feminismoaren sinesmen eta esperientzia ezberdinak txandaka azaltzea eta espazio komun bat sortzea, desadostasunez hitz egiteko eta ezagutza partekatua eraikitzeko. Hasiera: Bi azpitalde osatuko dira. Azpitalde horiek mistoak izan daitezke, baina, talde mistoen kasuan, interesgarriagoa da mutilen azpitalde bat eta nesken beste bat egotea. Horrek talde barruko identifikazio-efektua sustatzen du, eta ondorengo diskurtsoa. Bat A azpitaldea izango da eta bestea B azpitaldea. Arau hauek zehaztuko dira: - A azpitaldea erdian jarriko da, zirkuluan. - B azpitaldea zirkuluan jarriko da, A azpitaldearen zirkuluaren inguruan, bi zirkulu zentrokide osatuz. - A azpitaldeak 20 minutu ditu proposatuko diren gaiez pentsatzen eta sentitzen duenaz hitz egiteko. Premisa gisa, honako hau adierazi behar da: “Ez dago diskurtso onik edo txarrik, norberak uste eta sentitzen duena partekatzea baino ez. Zuen bizipenak ekar ditzakezue.” - B azpitaldeak isilik egon behar du entzuten. - 20 minutu igaro ondoren, ordena eta lekua aldatu egingo dira: B azpitaldeak parte hartuko du eta A azpitaldeak entzun egingo du. Garapena:

Arrainontzi-taldeak 20-25’:

Mutilen zein nesken azpitaldea has daiteke. Taldeko gidaria kanpoan egongo da (inoiz ez taldearen barruan), eta feminismoari buruzko hainbat gai/esaldi proposatuko ditu, eta taldeak modu librean hitz egin behar du gai horiei buruz.

- Gaiak/esaldiak aldezturik diseinatuta egon daitezke, baina garrantzitsua da taldeak azaltzen duen edukira egokitzea.
- Taldean gai interesgarri bat azaltzen denean edo intentsitatea jaisten denean, hurrengo esaldia sartzeko unea da.
- Alternatiba: aukera desberdin bat da esaldiak idaztea eta ahoz behera uztea aretoaren erdian. Gazteek deskubritu egingo dituzte: bat azaleratuko dute, hartaz hitz egingo dute. Gidatuagoa da, baina taldearen eduki organikoa gal dezake. Ondoren, bigarren taldeak hartuko du parte. Aurreko taldearen premisa berarekin has daiteke, edo talde horretako gairen bat berreskuratuz. Baina taldeak ez du oinarritu behar bere parte-hartzea beste taldeari buruz hitz egitean, baizik eta haiek uste dutenari buruz hitz egitean.

Hausnarketa 40-60’:

Hausnarketarako gunea oso garrantzitsua da, eta trebetasuna eskatzen du taldea gidatzeko. Premisa hauek kontuan hartu behar dira:

- Adierazi den edukia: desberdintasunak eta antzekotasunak. Egiaztatutako informazioa eta datuak ematea, sortu diren sinesmen batzuk desmitifikatzeko.
- Sinesmenak gertaerekin alderatzea. Diskurtsoak beren errealitateekin lotzea (familia, eskola, etab.), eta adibideak eskatzea.
- Jardunean zehar bizitakoa: hausnartu zer sentitu duten eta zergatik, adibidez, mehatxua, beldurra, arbuioa, nork hitz egin duen gehiago eta gutxiago, nor isiltzen den gehiago, epaitua sentitzea.

Amaiera:

Amaieran taldea gehiago gidatu behar da. Saio psikohezitzaile bat egingo da, eta saioan sortutakoaren informazioa eta gakoak emango dira: esperientziak, sinesmenak eta feminismoarekiko sentipenak. Eta guztiok esandakoa eskertzea. Amaitzeko, banan-banan kontatuko dute garrantzitsua iruditzen zaien zer ikasi duten espazio honetan.

JARDUERA: Erreferenteen lehiaketa	
Helburua	1. Hainbat eremu publikotan (kirolak, zientzia, kultura, politika, komunikabideak, etab.) emakumeen eta pertsona ez-binarioen ikusgarritasunari dagokionez dagoen desorekaz jabetzea 2. Genero-joerek gure erreferenteetan duten eraginari buruz eta ematen zaien espazio eta ikusgarritasun eskasari buruz hausnartzea.
Materialak	Diapositibak, proiektorea edo arbela, kartoï meheak, errotuladoreak, post-itak
Iraupena	40-60 min
Garapena	Taldeak egingo dira, taldeko ikasle-kopuruaren arabera. Talde bakoitzak kartulina bat jasoko du, kategoria hauek dituen taula edo eskema batekin: ● Kirolak ● Zientzia / teknologia ● Politika / boterea ● Kultura (zinema, literatura, artea, musika, bideojokoak) ● Bitartekoak eta influencer-ak ● Aktibismoa / mugimendu sozialak Lehiaketa gisa, eta denbora jakin batean, eremu bakoitzean boterea duten edo aitortuta dauden izenak idatzi behar dituzte (benetan burura datozkienak, Internet begiratu gabe), ingurukoak, nazionalak edo nazioartekoak. Gero izenak sailkatuko dituzte koloretako post-itak erabiliz genero edo identitatearen arabera. Amaitzean, kartulina guztiak horman edo arbelean itsatsiko dituzte, eta izen gehien duen generoa zein den ikusiko da.
Hausnarketa	● Zein kostatu zaizue gehiago burutik pasatzea? Zergatik? ● Zer ulertu duzue botereaz? ● Zein esparru daude maskulinizatuago edo feminizatuago? ● Nork betetzen du espazio publikoa? ● Zer erreferente femenino edo ez-binario txerta genitzake gure espazioetan (ikasgelak, sareak, bitartekoak...)? ● Zer inplikazio ditu genero batek edo besteak eremu horietakoren batean modu positiboan ordezkatuta ez egoteak? Garrantzitsua al da zu bezalako norbaitek inpaktu sozial positiboa lortu duela sentitzea, zuk ere lor dezakezula amesteko? Eremu horietan garrantzitsuak diren emakumeen eta pertsona ez-bitarren adibideak jasotzen dituen aurkezpen edo bideo labur bat erakustea (joerak konpentsatzeko eta erreferente berriak

	eskaintzeko).
--	---------------

JARDUERA: Maskulinitatearen kutxako emozioak	
Helburua	Maskulinitate tradizionalaren aginduek emozioen adierazpena nola mugatzen duten eta horrek bizikidetzan, harremanetan eta bake eta berdintasun kulturaren eraikuntzan nola eragiten duen hausnartzea.
Materialak	Kutxa bat (materiala edo sinbolikoa), emozioen izenak dituzten txartelak (poza, tristura, beldurra, amorrua, samurtasuna, harrotasuna, lotsa, errua eta abar)
Iraupena	60 min
Garapena	1. Sarrera: “Maskulinitatearen kutxa” kontzeptua azaltzen da: “ez oso maskulintzat” jotzen diren zenbait emozio erreprimitzea, gizonei inposatzen zaizkien arau sozialak. 2. Jarduera nagusia: Talde txikitan, emozioak dituzten txartelak banatuko dira. Erabaki behar dute zeintzuk “baimentzen” diren kutxa barruan (gizartean gizonentzat onartutako emozioak) eta zeintzuk uzten diren kanpoan (erreprimitu ohi direnak). Txartelak fisikoki kaxaren barruan edo kanpoan jarriko dira. Esaldi pizgarriak dituzten txartelak edo paperak ere erabil daitezke (adibidez: “Behin beldurra sentitu nuen naizena izateagatik”, “Nire janzeragatik epaitu naute”, “Nor bait bere generoagatik bidegabeki tratatua izaten ikusi dut”, “Libre sentitu naiz ni neu izanik”, etab.). Hartara, bizipen hori izan dutenek edo genero-identitate edo orientazio sexual bereko pertsonengan ikusi izan dutenek, erabaki ahal izango dute adierazpen hori non jarri. 3. Partekatzea: Talde bakoitzak partekatuko du zer emozio utzi zituen barruan eta kanpoan, eta zergatik. Emaizak guztien artean konparatuko dira. 4. Amaiera: Kutxa ireki eta debekatutako emozioak “askatu” egingo dira. Parte-hartzaile bakoitzak emozio bat aukeratu eta honelako esaldi bat osatuko du: “Gustatuko litzaidake gizonek gehiago adierazi ahal izatea (emozioa) beldurrik gabe.”
Hausnarketa	- Zer emozio geratu dira kutxatik kanpo eta zergatik? Nola erlazionatzen dira gure emozioak genero agindu sozialekin? - Zer ondorio ditu gizonentzat eta gizartearentzat zenbait emozio zapaltzeak? - Zer lotura dago errepresio emozionalaren eta indarkeriaren artean (norberarena edo besteena)? - Nola eraiki dezakegu maskulinitate askeago, enpatikoago eta

	baketsuago bat? - Emakumeei baimentzen zaizkien emozio edo praktiketarik, zein uste duzue talde honetako gizonentzat onuragarria izango litzatekeela? (adibidez, laguntza eskatzea, ahul agertzea, barregarri geratzeko beldurrik gabe kezka bat kontatzea, maite den jendea hobeto zaintzen jakitea, etab.) Nikaraguako esperientzia ekar dezakegu ingurumena zaintzeko eskuliburutik. - Zer onura ekarriko lizkiguke pertsonalki eta kolektiboki gizonok zeuen burua, zuen zirkuluak eta murgilduta zaudeten komunitateak gehiago zainduko bazenituzte? - Ezagutzen al dituzue gizon izateko beste modu batzuk, beste maskulinitasun-eredu batzuk, zuen inguruan edo munduko beste leku batzuetan praktikatzen direnak? - Emozioak aitortu eta adierazteak, gizon, emakume edo pertsona ez binario gisa identifikatuz, bakea eta berdintasuna lortzen lagun dezake?
--	---

JARDUERA: Hiri feministak	
Helburua	Espazio publikoak pertsonen berdintasunean eta segurtasunean duen eraginari buruz hausnartzea, bereziki emakume eta kolektibo ahulenei dagokienez. Zaintzetan oinarritutako hiri edo komunitate inklusiboago, seguruago, irisgarriago bat kolektiboki irudikatzea.
Materialak	● Paper handia edo kartulina ● Errotuladoreak, koloretako arkatzak, ebakitzeko aldizkariak, kola eta guraizeak ● Hiri edo auzo baten mapa sinpleak
Iraupena	60 minutu
Garapena	1. Sarrera: Hausnarketa gidatu labur batekin hasiko gara: “Norena da hiria, auzoa edo herria? Seguru eta eroso sentitzen al gara espazio guztietan?” Hirigintza feministaren oinarritzko kontzeptu batzuk azalduko dira (segurtasuna, irisgarritasuna, zaintza, parte-hartzea, aniztasuna). 2. Taldeakako lana: Galdera hau botako dugu: “Zer izan beharko luke bizi naizen lekuak, denok bertako protagonista izateko eta seguru eta erosoago bizitzeko?” Taldeka lan egingo da eta talde bakoitzak bere hiri feminista diseinatuko du kartulina edo mapa batean. Marraztu, irudiak moztu edo ideiak idatz daitezke. Garraio publikoa, zaintza-guneak (haurtzaindegia, argiak, komunak), kultura-guneak, aisialdi-guneak eta abar nola birdiseinatu beharko liratekeen pentsatzera animatuko dira. 3. Partekatzea: Talde bakoitzak bere hiria aurkeztuko du bere

	ideia nagusiak azalduz. Horma-irudiak horman itsats daitezke, erakusketa kolektibo bat bailitzan. 4. Amaiera: Gure komunitate eta inguruneetan zer alderdi sar ditzakegun hausnartzea.
Hausnarketa	● Nolakoa izango litzateke zaintza eta berdintasuna lehenesten dituen hiria? ● Gaur egungo zein toki edo ohiturek erreproduzitzen dituzte desberdintasunak edo bazterketak? ● Zer ekintza txikik sentiaraziko gintuzkete seguruago eta askeago gure eguneroko espazioetan? ● Zer lotura dago hirigintza feministaren eta bake sozialaren artean?

JARDUERA: Akabo gezurrak	
Helburua	Salaketa faltsuei eta feminismoari buruzko gezurrak nola sortzen, zabaltzen eta mantentzen diren modu bizigarrian ulertzea, horiek sostengatzen dituzten emozio, interes eta narratibak aztertuz. Biktimekiko pentsamendu kritikoa eta enpatia sustatzea.
Materialak	Benetako esaldiak edo sare sozialetatik, komunikabideetatik edo eguneroko elkarrizketetatik egokitutako ideiak dituzten txartelak (adibidez: “Emakume batzuek gizonak izorratzeko jartzen dituzte salaketak”, “Jada ezin da ezer esan”, “Hain larria balitz, harremana moztuko lukete”, eta abar.), paperak, errotuladoreak eta arbel edo mural bat.
Iraupena	60 minutu
Garapena	1. Sarrera: Gezurrek informazio faltsua transmititzeaz gain, emozio eta beldur kolektiboak ere transmititzen dituztela planteatzen da. 2. 1. fasea: Gezurra entzutea: Taldeka, bakoitzak txartel bat jasoko du, gezurra esaten duen esaldi batekin. Irakurri eta hausnartu behar dute: Zer emozio transmititzen edo aktibatzen du esaldi honek? (beldurra, amorrua, mesfidantza, frustrazioa, lotsa...). Idatzi egingo dute. 3. 2. fasea: Beldurraren atzean: Eztabaida taldea: zer egon daiteke emozio horren atzean? Zer historia, bizipen edo testuinguru motak eragin lezake norbaitek ideia hori sinestea edo errepikatzea? (Adibidez: segurtasun eza, pribilegioak galtzea, ezjakintasuna, kudeatu gabeko mina...). 4. 3. fasea: Istorioa berridaztea: Talde bakoitzak hasierako esaldia mezu alternatibo bihurtuko du, sakoneko emozioa gorde baina modu konstruktiboan edo enpatikoan adieraziko duena. Adibidez: - “Emakume batzuek gizonak izorratzeko jartzen dituzte salaketak”, → “Batzuetan kosta egiten da salatzen duenaren mina ulertzea; epaitu aurretik entzun genezake.” - “Jada ezin da ezer esan” → “Minik egiten ez duten hitz egiteko modu berriak ikasten ari gara.” 5. Partekatzea eta amaiera: Mezu alternatiboak ozen irakurri eta horman zintzilikatuko dira. Hausnartuko da nola aldatzen den diskurtsoaren zentzua erreakziotik ulermenera igarotzen garenean.
Hausnarketa	● Zer emozio ezkututzen dira gezurrek atzean? ● Zergatik nahiago dugu istorio batzuk sinetsi beste batzuk

	baino? ● Zer gertatzen zaigu esaldi bidegabe bat entzuten dugunean? Nola erantzun dezakegu lasaitasunetik eta enpatiatik? ● Zer gizarte mota eraikitzen dugu mesfidantzaren ordezt sinestea eta zaintzea aukeratzen dugunean?
--	---

V. Azken gomendio orokorrak

Jarraian, eskuliburu honetan jasotako lan-esperientziak egokitzeke zenbait iradokizun aurkeztuko ditugu. Lan-esperientzia horiek gazteek bakearen eraikuntzan parte har dezaten sustatzera bideratuta daude, haien eraldatze-ahalmena indartzeko.

1. Tokiko testuingurura egokitzea

- **Gertukoa eta orokorra lotzea:** esku hartzen den lurraldean dauden gizarte-bidegabekeria edo indarkeria mota desberdinen (zuzenekoa, kulturala eta egiturazkoa) adierazpena identifikatzea. Bidegabekeria eta indarkeria hauek harremana dute fokua jartzen ari garen bake-eraikuntzari lotutako gairadatzarekin. Munduko beste leku batzuetako adierazpenekin ere lotu beharko dute gertukoa. Horrekin, mugaz gaindiko arazoei heldzea bilatuko da, hala nola gazteen lan prekarietatea, arrazakeria estrukturala, indarkeria matxista, sare sozialetako indarkeria edo gorroto diskurtsoak, komunalitateak eta alderdi diferentzialak nabarmenduz, intersektionalitatearen fenomenoak azaleratzeari utzi gabe.
- **Hasieratik entzutea:** gazteek sortzailekide izan behar dute parte hartzen duten hezkuntza-prozesuen diseinutik abiatuta, eta ez bakarrik onuradun. Horrela, esku-hartzean lantzen diren azpigiaren zehaztapena eta haiek taxutzen dituzten jarduerak edo metodologiak hobeto lotuko zaizkie beren interesei, garrantzitsuagoak egingo zaizkie eta ikaskuntzak esanguratsuagoak izango dira. Eskuliburu hauek diseinatu aurreko diagnosi-prozesuan, “entzuten zaiela sentitzea eta eztabaidatu ahal izatea” izan zen haien eskaera nagusietako bat. Zaharberritzeko hezkuntza-jardunbideetatik proposatzen direnak bezalako interesak esploratzeko hitz-zirkuluak planteatzeaz gain, eskuliburu hauetan landuko diren Bakearen Kulturaren ardatz eraikitzaileei dagokienez, Espainiako testuinguruan gazteei gehien interesatzen zaizkien kontuei buruzko hasierako argibide batzuk izateko, erreferentzia hauek kontsulta daitezke:
 - “BAI BAKEARI” diagnostiko-txostena:
https://www.mpd.org/sialapaz/06_Informe%20de%20diagn%C3%B3stico%20final.pdf
 - “Informe Juventud en España 2024: entre la emergencia y la resiliencia”, Ministerio de Juventud e Infancia (“Gazteak Espainian 2024: larrialdiaren eta erresilientziaren artean” txostena, Gazteria eta Haurtzaro Ministerioa,

INJUVE)

- **Hizkuntza irisgarri eta kulturalki egokia erabiltzea:** gure planteamenduetan teknizismoak saihestea eta gazte-kodeetara hurbiltzea (musika, sareak, kirola, hiri-arteak).
- **Taldeen barne-aniztasuna baloratzea:** jatorri kulturalak, migrazio-ibilbideak eta genero-identitate anitzak ezagutzea, ahots guztiak entzun daitezela bermatuz. Begirada intersektionala izatea, desberdintasunak sortzean generoa, klasea, etnia, adina edo beste faktore batzuk nola gurutzatzen diren aztertzea.

2. Espazio seguru baterako baldintzak

- **Gazteriarekin batera bizikidetza-akordioak eraikitzea:** errespetua, konfidentzialtasuna eta entzute aktiboa. Elkarriketa Zirkuluak planteatzeko, hala nola hezkuntzako praktika konpontzaileak proposatzen dituztenak, oinarritzko akordio hauek proposatzen dira: hitzaren txandaren objektu identifikatzailea duenak bakarrik hitz egiten du, gainerakoek entzuteko boterea duten bitartean; borondatezkoa da hitz egitea; zirkulua kide guztiek zaintzen dute.
- **Ondoeza agertuz gero elkarri laguntzeko edo zaintzeko protokoloak txertatzea:** gai batzuek (indarkeria, arrazakeria, pobrezia) esperientzia pertsonalak aktibatu ditzakete.
- **Gazteak protagonista direla onartzea:** ikasleei ulertaraztea ez ditugula hartzen izaki ezjakintzat edo eduki-hartzaile pasibotzat, horrek esan nahi du irakaslearen eta ikasleen arteko noranzko bakarreko komunikazioa saihestea, ikasgela osoaren parte-hartzea sustatzea, helduen begirada harroputzak saihestea, eta, horrekin batera, gazteek ezagutzen dutenarekiko edo beren buruari galdetzen diotenarekiko benetako jakin-mina praktikatzeko, eta ikasgelan sortzen den ezagutza kolektiboki eraikitzen dela transmititzea. Horrek guztiak esan nahi du irakasleak ez direla jakinduriaren eta egiaren jabe bakarra, eta ikasleak, berriz, pertsona helduek bete beharreko ontzi hutsak.
- **Espazio ausarta sustatzea:** Palestinan jasotako eta “Genero Berdintasunerako Eskuliburuan” aurkeztzen den esperientziari jarraituz, gai deserosoak jorratu ahal izateko eta diskurtso alternatiboak sortzeko *espazio seguru* baten sorreratik harago joatea da asmoa, indarkeriak goraipatzen dituen inertzia dominatzaileetatik urrun. Pertsonen eta taldeen arteko elkarriketa horiek testuinguru polarizatu edo tentsionatuetan planteatzean inspirazioa aurkitzeko, epe luzera bizikidetza bermatuko duten eraldaketak lortzeko estrategia komun baten topaketa erraztu nahi duten testuinguruetan, John Paul Lederachen “Diálogos improbables” (“Elkarriketa gertagaitzak”) edo Escola de Cultura de Pau (Paueko Kulturaren Eskola) delakoak egindako lana, “Discrepancia bienvenida: guía pedagógica para el diálogo controvertido en el aula” (“Ongi etorri desadostasuna: elkarriketa eztabaidagarriarako gida pedagogikoa ikasgelan”), erreferentziatzat har ditzakegu.

3. Iradokitako metodologiak

- **Artea eta kultura:** zapalduaren antzerkia, muralismoa, musika, argazkigintza edo zirku soziala, mobilizazio emozionala eta hausnarketa kritiko pertsonala eta kolektiboa errazten duten tresna sortzaileak dira, motibatu eta hunkigarri gertatzen diren egoera errealean edo errealitatearen antzekoen esperientziatik abiatuta.
- **Kirola eta jokoa:** lankidetzak, errespetua eta indarkerien prebentzioa sustatzen dute.
- **Elkarrizketak eta komunitate-foroak:** gizarte-kohesioa indartzen dute, batez ere belaunaldien eta kulturen arteko espazioetan. Elkarrizketa horiek diseinatzeko, hezkuntza-praktika leheneratzaileetako erreferenteetara jotzea gomendatzen dugu, hala nola Belinda Hopkinsek proposatutako Zirkuluaren denbora edo Hitzaren Zirkulua.
- **Teknologia digitalak:** sare sozialetan gazte-kanpainak diseinatzeko aukera eskaintzen dute, edozein gai interesgarriren inguruan, indarkeria ezan oinarrituta. Lan hau planteatzeko baliabide inspiratzaile gisa, NOVACTek garatutako “Digital Organising” programa proposatzen dugu, IKTbak erabiliz Bake Kultura globala sustatzen duten eragin-kanpainak diseinatzeko online trebakuntza: <https://novact.org/es/formacio/>.

4. Iraunkortasuneko funtsezko faktoreak

- **Prozesu jarraituak:** jarduera bakanak saihestea eta iraupen ertain/luzeko ibilbide planifikatuan oinarritutako hezkuntza-prozesuen aldeko apustua egitea. Prozesu horiek, hain zuzen, proiektuen bidezko lana ahalbidetzen dute, eta irakasgai desberdinen artean eduki komunak transbertsalizatzen dituzte.
- **Gazteen talde eragileak:** gazteen motibazioa eta gaitasunak estimulatzea, beren komunitatean esku hartzeko gai direla senti dezaten, eta sentsibilizatzea edo beste leku batzuetako gizarte-mobilizazioa sustatzea, hedatze-prozesuak sortuz.
- **Sare-lana:** auzoko elkarrekin, ikastetxeekin, gizarte-zerbitzuekin eta gazte-taldeekin koordinatzea, ikaskuntzak eta parte hartzeko benetako aukerak lotzeko.
- **Belaunaldien arteko erantzunkidetasuna:** hezitzaileak, familiak eta gazte-zentroetako langileak erreferente egonkor gisa inplikatzeko.
- **Tokiko agintarien inplikazioa:** denboran eta baliabide ekonomikoetan iraunkortasuna bermatzeko gakoa.
- **Ebaluazio parte-hartzailea:** gazteek ikasitakoa ebaluatzen duten eta hobekuntzak iradokitzen dituzten uneak integratzea, prozesuen sortzailekide gisa duten zeregina indartuz.

Azken batean, gomendio hauek ez dira errezeta bakarra, orientabide irekien multzo bat baizik, eta talde eta hezitzaile bakoitzak bere errealitatera egokitu ahal izango ditu.

Funtsezkoa da sinestea gazteria protagonista dela bakea eta ingurumen-justizia eraikitzean, eta gure hezkuntza-lana haien gaitasunak laguntzea, erraztea eta indartzea dela. Ikuspegi horretatik, esperientzia bakoitza aldaketa-hazi bihur daiteke, elkarrekin ikasteko aukera, eta etorkizun bidezkoago, jasangarriago eta baketsuago baterako urrats irmo.

VI. Glosarioa

1. **Onespena:** Borondatez "bai" esatea edo "ez" ez esatea, derrigortu gabe, kontzientea, ahozkoa edo ez-ahozkoa, edozein unetan baztertu daitekeena. Adostasunik eza larderia-egoera batean gertatzen da, biktima bere borondatea baliogabetzen edo menderatzen duen zaurgarritasun-egoera batean dagoenean. Testuinguruan kokatzen da, eta horrek esan nahi du, botere-desberdintasuneko egoera jakin batzuetan, adostasunik eza adieraztea ezinezkoa izan daitekeela edo oso zaila izango litzatekeela emakumeentzat. Menderatze-baldintza horiek kontuan hartuta, autore batzuen ustez, baimena ematea bestearen boterearen aurrean amore ematearen adierazpena izan daiteke. Inguratzen gaituen bortxaketaren kulturen, sexu adostuaren eta sexu erasoaren arteko mugak lausotu egiten dira.
2. **Feminismoa:** Mugimendu politiko, sozial eta teorikoa da, emakumeen eta gizonen arteko eskubide-berdintasuna eta aukera-berdintasuna bilatzen duena, baita emakumeek emakume izateagatik aurre egiten dieten diskriminazio- edo indarkeria-mota oro ezabatzea ere. Horretarako, indarkeria horien aitortza, erreparazioa eta ez errepikatzeko konpromisoa erraztea proposatzen da, tratuetan, ongizate kolektiboan eta justizia sozialean oinarritutako harremanen ezarpena lortzeko bidea proposatuz. Mugimendu horren barruan, gizarte-justizia hori lortzeko hainbat planteamendu daude; izan ere, emakumeak izateagatik eragiten dieten diskriminazioek beste baldintza batzuekin elkarreragiten dute, hala nola, talde etniko baten parte izatearekin, jatorriarekin edo maila sozioekonomikoarekin. Hori dela eta, komunitate bakoitzak berdintasuneranzko eraikuntza-bide bati egin behar dio aurre, abiapuntu desberdin batetik, eta kultura- eta gizarte-testuinguru jakin batean kokatzen da. Horregatik, gure ustez, funtsezkoa da munduko korrante feminista ezberdinek arazoa ikusteko moduari eta askapen estrategiari arreta jartzea: feminismo liberala (emakumeak sisteman integratzea bilatzen du, sistema bera zalantzan jarri gabe), feminismo erradikala (emakumeek pairatzen duten zapalkuntzaren sustraiak aztertu eta desagerrarazi nahi ditu), feminismo beltza (matxismoaren, arrazakeriaren eta klasismoaren arteko interseksionalitatea azpimarratzen du), feminismo marxista (zapalkuntzaren iturria emakumeari ezartzen dio) edo ekofeminismoa (emakumeek pairatzen duten zapalkuntza ingurune naturalaren harraparitzarekin lotzen du eta emakumeak ahalduentzeko eta planeta zaintzeko eredu alternatiboak bilatzen ditu). Gaur egun, mugimendu feministan zatiketa

dago: transbartzertzaileak (feminismoak emakume transexualek jasaten duten zapalkuntzarekin amaitzeaz arduratu behar duenik ukatzen dute), eta transfeministak (feminismoaren subjektua emakume trans eta bestelako genero disidentzietara zabaltzen dute).

3. **Generoa vs sexua. Genero disidentziak.** “Sexua” ugalketa-sistemaren anatomiari eta bigarren mailako sexu-ezaugarriei dagokie (beraz, kontzeptu biologiko-fisiologikoa da); “generoa”, berriz, gizarte-erakuntza bat da, eta kulturalki irakatsitako eta ikasitako rol eta espektatiba bitar tradizionalak, desberdintasun sexual biologikoan oinarrituak, bereizteko erabiltzen da. Erakuntza sozial eta kulturala denez, une historikoarekiko, gizarte-testuinguruarekiko eta gizartearekiko sentikorra den kategorizazio-modu arina da, eta, beraz, aldatu egin daiteke. Gaur egun, genero-binarismoa zalantzan jartzeak aukera ematen du haren ikuspegi tradizionala zabaltzeko, eta, hala, genero-identitate eta -adierazpen askotarikoen nahaste bat sartzeko, genero-rol tradizionalen inposiziotik urrun.
4. **Genero berdintasuna:** “Oinarritzko giza eskubidea izateaz gain, mundu baketsu, oparo eta iraunkorra eraikitzeke funtsezko oinarrietako bat da”. (NBE) “Gizonen eta emakumeen arteko aniztasuna eta tratu-berdintasuna onartzea da, bakoitzaren beharren eta ezaugarrien arabera, baina horiek ez dute diskriminaziorik eragiten” (MPDL). “NOVACTen, genero berdintasunaren kontzeptua baino, genero justiziarena erabiltzen dugu, gure helburua ez baita soilik berdintasun formala bermatzea, diskriminazio estrukturala iraunarazten duten botere harreman guztiak eraldatzea baizik. Eraldaketa hori egiteko, ikuspegi feminista interseksionala hartu behar da, kontuan hartzeko nola interakzionatzen duen generoak beste zapalkuntza-ardatz batzuekin (...) Gure ustez, soilik mugimendu feministen eta LGTBQIA+ mugimenduaren parte-hartze aktiboaren bidez eta erresistentzia testuinguruetan emakumeek eta sexu disidentziek egiten duten lan ikusezina aitortuz izango da posible sistema patriarkalak eta autoritarioak desmuntatzea, eta gizarte justuagoak, bidezkoagoak eta indarkeriarik gabekoak eraikitzea, eta azken finean, bake positiboa garatzen laguntzea”.
5. **Interseksionalitatea:** “Fenomeno honen bidez gizabanako bakoitzak zapalkuntza edo pribilegioa pairatzen du, gizarte-kategoria anitzekoa izateagatik”, Kimberlé Williams Crenshaw autoreren definizioa da hau. Pertsonen identitatea osatzen duten hainbat faktore elkarren artean nola gurutzatzen diren eta elkarri nola eragiten dioten aztertzeke aukera ematen duen esparrua da, zapalkuntza- eta desberdintasun-sistema bereiziak eta partikularrak sortuz. Zapalkuntza-faktore horiek, besteak beste, generoa, etnia, arraza, gizarte-klasea, ezgaitasuna, sexu-orientazioa edo genero-identitatea izan daitezke, eta ez dute modu independentean lan egiten; aitzitik, elkarrekin erlazionatzen dira eta elkarri

eragiten diote, gizarte-bidegabekerien, desberdintasunen eta diskriminazioen maila ugari sortuz.

6. **Matxismoa:** Diskriminazio eta zapalkuntza modu bat da, emakumearen kaltetan eta gizonezkoaren mesedetan, azkenaren nagusitasuna lehenaren gainetik onartzen duena. Indarkeria zuzen, kultural edo sinbolikoaren adierazpen ezberdinen forma hartzen duten eta oso zabaldua eta errotuta dauden sinesmen, arau eta praktika sozialen sare baten bidez adierazten da.
7. **Genero-indarkeria:** “Emakumeek emakume izate hutsagatik jasaten dute indarkeria, eta biktimak edozein gizarte-maila, hezkuntza-, kultura- edo ekonomia-mailatako emakumeak dira. Erasotzailearen helburua kaltea eragitea eta emakumearen gaineko kontrola lortzea da”. (Emakumearen Institutua). Genero indarkeriaz edo indarkeria matxistaz ari garenean ez gara soilik indarkeria zuzenaz ari (eraso fisikoak), psikologikoaz (manipulazioa, baliogabetzea, hitzezko tratatu txarrak), sexualaz (jazarpena eta sexu erasoak), digitalaz (online inguruneak eraso edo diskriminazio mota guztiak) eta ekonomikoaz (menpekotasuna sustatzeko baliabide ekonomikoen kontrola eta nahita egindako murrizketa) ere ari gara.

